

<p>2007KO AZAROAREN 30AN,          LEHENENGO DEIALDIAN          GETXOKO UDALBATZAK          EGINDAKO OHIKO          OSOKO BILKURAREN          AKTA</p> <p>=====</p> <p><u>BILDUTAKOAK</u></p> <p><u>LEHENDAKARIA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN          ORDINARIA CELEBRADA          EN PRIMERA          CONVOCATORIA POR EL          PLENO DEL          AYUNTAMIENTO DE          GETXO, EL DÍA 30 DE          NOVIEMBRE DE 2.007.</p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>PRESIDENTE</u></p>
--	---

Imanol Landa Jauregi Jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
---------------------	-----------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)  
 Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)  
 Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)  
 Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
--------------------	-------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)  
 Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)  
 Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)  
 Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)  
 Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)  
 María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)  
 Eduardo Andrade Aurrecoechea (P.P.)  
 Jesús Toca Toña (P.P.)  
 Iñaki Gamero Delgado (P.P.)  
 Raquel González Díez-Andino (P.P.)  
 Josu Ahedo Ruiz (P.P.)  
 Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)  
 Jorge Grases García (P.P.)  
 Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)

Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)  
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)  
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)  
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)  
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)  
Iñaki Urkiza Arana (E.B.-B.)

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Behin-behineko Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diez horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**188.- 2007KO URRIAREN 26AN ETA AZAROAREN 8AN EGINDAKO BATZAR ARRUNTEKO ETA BEREZIKO AKTAK ONESTEA.**

**188º.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS ANTERIORES SESIONES ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA CELEBRADAS LOS DÍAS 26 DE OCTUBRE DE 8 DE NOVIEMBRE DE 2.007.**

1.- Getxoko Udaleko Udaltzarak 2007ko urriaren 26an egindako ohiko osoko bilkuraren akta onetsi da.

2.- Getxoko Udaleko Udaltzarak 2007ko azaroaren 8an egindako aparteko osoko bilkuraren akta onetsi da.

1º.- Se aprobó el Acta de la sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 26 de octubre de 2.007.

2º.- Se aprobó el Acta de la sesión extraordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 8 de noviembre de 2.007.

OGASUN, EKONOMIA, GIZA BALIABIDE ETA KONTUAK

HACIENDA, ECONOMÍA, RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS

**189.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 6.947, 6.950, 6.953, 6.954 eta 7.002 DEKRETUEN BERRI EMATEA. BERAIEIEN BIDEZ, AURREKONTUA KREDITU GEHIGARRIZ ALDATU ZEN.**

**189º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 6.947, 6.950, 6.953, 6.954 Y 7.002, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Kreditu gehigarriaren bidez aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante Crédito Adicional:

6.947	Dekretua,	2007-11-05ekoa,
	110.500,00 €koa.	
6.950	Dekretua,	2007-11-08koa,
	224.061,00 €koa.	
6.953	Dekretua,	2007-11-05ekoa,
	50.692,00 €koa.	
6.954	Dekretua,	2007-11-05ekoa,
	25.000,00 €koa.	
7.002	Dekretua,	2007-11-05ekoa,
	38.000,00 €koa.	

Decreto nº 6.947,	de 5 de noviembre de 2007,	por un importe de: 110.500,00 €.
Decreto nº 6.950,	de 8 de noviembre de 2007,	por un importe de: 224.061,00 €.
Decreto nº 6.953,	de 5 de noviembre de 2007,	por un importe de: 50.692,00 €.
Decreto nº 6.954,	de 5 de noviembre de 2007,	por un importe de: 25.000,00 €.
Decreto nº 7.002,	de 5 de noviembre de 2007,	por un importe de: 38.000,00 €.

**190.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 6.363, 6.443, 6.680, 6.785, 6.936, 6.942, 6.944, 6.998, 7.060 eta 7.065 DEKRETUEN BERRIEMATEA. BERAIEIEN BIDEZ, AURREKONTUA TRANSFERENTZIEIEN BIDEZ ALDATU ZEN.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Transferentzien bidez aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

6.363 Dekretua, 2007-10-16koa, 5.174,27 €koa.  
6.443 Dekretua, 2007-10-22koa, 8.324,00 €koa.  
6.680 Dekretua, 2007-11-02koa, 20.000,00 €koa.  
6.785 Dekretua, 2007-10-31koa, 8.700,00 €koa.  
6.936 Dekretua, 2007-11-05ekoa, 26.000,00 €koa.  
6.942 Dekretua, 2007-11-05ekoa, 27.590,60 €koa.  
6.944 Dekretua, 2007-11-05ekoa, 9.159,60 €koa.  
6.998 Dekretua, 2007-11-05ekoa, 17.275,00 €koa.  
7.060 Dekretua, 2007-11-08koa, 62.000,00 €koa.  
7.065 Dekretua, 2007-11-05ekoa, 3.218,35 €koa.

**191.- KONPROMISOKO KREDITUA ONESTEA TERMITA, ANOBIDO**

**190.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 6.363, 6.443, 6.680, 6.785, 6.936, 6.942, 6.944, 6.998, 7.060 Y 7.065 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Transferencias:

Decreto nº 6.363, de 16 de octubre de 2007, por un importe de : 5.174,27 €.  
Decreto nº 6.443, de 22 de octubre de 2007, por un importe de: 8.324,00 €.  
Decreto nº 6.680, de 2 de noviembre de 2007, por un importe de: 20.000,00 €.  
Decreto nº 6.785, de 31 de octubre de 2007, por un importe de: 8.700,00 €.  
Decreto nº 6.936, de 5 de noviembre de 2007, por un importe de: 26.000,00 €.  
Decreto nº 6.942, de 5 de noviembre de 2007, por un importe de: 27.590,60 €.  
Decreto nº 6.944, de 5 de noviembre de 2007, por un importe d: 9.159,60 €.  
Decreto nº 6.998, de 5 de noviembre de 2007, por un importe de: 17.275,00 €.  
Decreto nº 7.060, de 8 de noviembre de 2007, por un importe de: 62.000,00 €.  
Decreto nº 7.065, de 5 de noviembre de 2007, por un importe de: 3.218,35 €.

**191.- APROBACIÓN DE UN CRÉDITO DE COMPROMISO CON**

ETA USTELTZEKO ONDDOEN ERASOAK SANTA KLARA UDAL ERAIKINEAN ERAGINDAKO KALTEEN DIAGNOSTIKOA ETA TRATAMENDUA EGITEKO LANEI ZUZENDUTA.

Proposamena irakurritakoan, bozkatu egin da, eta haxe izan da emaitza: aldeko 15 boto (PNV, PSE-EE eta EB/B) eta 10 abstentzio (PP).

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da geheiengoz:

2008-2012 aldirako 19.105,20 euroko Konpromisoko Kreditua onestea, termita, anobido eta usteltzeko onddoen erasoak Santa Klara Udal eraikinean eragindako kalteen diagnostikoa eta tratamendua egiteko lanei zuzenduta. Berau hurrengo partida eta zenbatekoei dagokie:

DESTINO A LOS TRABAJOS DE DIAGNÓSTICO Y TRATAMIENTO DE DAÑOS PRODUCIDOS POR EL ATAQUE DE TERMES, ANÓBIDOS Y HONGOS DE PUDRICIÓN EN EL EDIFICIO MUNICIPAL SANTA CLARA.

Tras darse lectura a la propuesta, se somete a votación, obteniendo el siguiente resultado: 15 votos a favor del PNV, PSE-EE y EB/B y 10 abstenciones del PP.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Aprobar un Crédito de Compromiso para el periodo 2008-2012 por importe de 19.105,20 euros, con destino al diagnóstico y tratamiento de daños por el ataque de termes, anóbidos y hongos de pudrición en el edificio municipal de Santa Clara, que afecta a las siguientes partidas e importes:

<u>Ekitaldia/ Ejercicio</u>	<u>Aurrekontuko partida/ Partida presupuestaria</u>	<u>Zenbatekoa / Importe</u>
2008	04 4320 2110000	8.915,76 €.
2009	04 4320 2110000	2.547,36 €.
2010	04 4320 2110000	2.547,36 €.
2011	04 4320 2110000	2.547,36 €.
2012	04 4320 2110000	2.547,36 €.

192.- GETXOKO UDALEKO GIZARTE PRESTAZIOEN ARAUDIKO ERANSKINA ALDATZEA.

192º.- MODIFICACIÓN DEL ANEXO AL REGLAMENTO DE PRESTACIONES SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da aho batez:

Getxoko Udalaren Gizarte Prestazioen Araudiko eranskina onestea, 1995eko maiatzaren 26ko osoko bilkuraren erabakiz onetsia (153. puntua), espedienteari lotutako eranskinean dauden zehaztapenekin bat etorritz.

#### LEHENDAKARITZA

#### 193.- GETXOKO UDALERRIAN 2008. URTEKO EKITALDIRAKO AUTO-TAXIKO BIDAIARIEN HIRI-BARRUKO GARRAIOAREN ZERBITZU PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO TARIFEN EGUNERAPENA ONESTEA.

Proposamena irakurritakoan, bozkatu egin da, eta hauxe izan da emaitza: aldeko 11 boto (PNV eta EB/B) eta 14 abstentzio (PP eta PSE-EE).

Lehendakaritza Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

1.- "Getxoko Udalerrian 2008. urteko ekitaldirako auto-taxiko bidaiarien hiri-barruko garraioaren zerbitzu publikoari aplikatu beharreko tarifaren egunerapena" onestea, KPIri dagokion %3,1eko ehuneko aplikatuta tarifa guztietan.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por unanimidad:

Modificar el Anexo al Reglamento de Prestaciones Sociales del Ayuntamiento de Getxo, aprobado por acuerdo plenario nº 153, de 26 de mayo de 1995, de acuerdo con las especificaciones contenidas el Anexo que se une al expediente.

#### PRESIDENCIA

#### 193º.- APROBACIÓN DE LA ACTUALIZACIÓN DE LAS TARIFAS APLICABLES AL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSPORTE URBANO DE VIAJEROS EN AUTO-TAXI, PARA EL EJERCICIO 2.008, EN EL MUNICIPIO DE GETXO.

Tras darse lectura a la propuesta, se somete a votación, obteniendo el siguiente resultado: 11 votos a favor del PNV y EB/B y 14 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Presidencia, se acordó por mayoría:

1.- Aprobar la "Actualización de las Tarifas Aplicables al Servicio Público de Transporte Urbano de Viajeros en Auto-Taxi para el Ejercicio 2008 en el Municipio de Getxo", aplicando el porcentaje del 3,1% correspondiente al IPC, en todas las tarifas,

I. tarifa: Tarifa hau aplikagarria izango da lagunetan 7:00etatik 23:00etara bitartean.

Gutxieneko pertzepzioa: 4,48 €,  
Egindako Km.: 0,9567485 €  
Itxaron-ordua: 14,25 €

II. tarifa: Tarifa hau aplikagarria izango da igandeetan eta autonomia eta tokiko araudian finkatutako jaiegunetan, bai eta larunbatetan 13etatik aurrera eta lanegunetan 23:00etatik 7:00etara bitartean.

Gutxieneko pertzepzioa: 4,91 €  
Egindako Km.: 1,0582226 €  
Itxaron-ordua: 18,53 €

Bi tarifa hauetarako gutxieneko pertzepzioan jasotako ibilbidea 1.500 metrokoa da.

2.- Espedientearen berri ematea Euskadiko Prezioen Batzordeari, Bilboko Merkataritzako Ordezkaritzaren bidez, Industria eta Merkataritza Sailaren 1988. urteko irailaren 21eko aginduan aurreikusitako ondorioetarako. Beraren bidez, hiri-barruan egindako auto-taxiko zerbitzuen tarifak berrikusteko espedienteak doitu beharreko arauak ezartzen dira.

**194.- GIZARTE ZERBITZUEN ETA BARNE ARAUBIDEKO AGIRIAK AUKERATU ETA GARBITZEKO APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK ONESTEA.**

Proposamena irakurritakoan, bozkatu egin da, eta haxe izan da emaitza: aldeko 15 boto (PNV, PSE-EE eta EB/B)

Tarifa I: Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 7:00 y las 23:00 horas.

Percepción mínima: 4,48 €,  
Km. Recorrido: 0,9567485 €  
Hora espera: 14,25 €

Tarifa II: Esta tarifa será aplicables los domingos y los días festivos fijados a la normativa autonómica y local, así como los sábados a partir de las 13 horas y laborables entre las 23:00 horas y las 7:00 horas.

Percepción mínima: 4,91 €  
Km. Recorrido: 1,0582226 €  
Hora espera: 18,53 €, y

Para las dos tarifas el recorrido incluido en la percepción mínima es de 1.500 metros.

2.- Dar traslado del expediente a la Comisión de Precios de Euskadi, a través de la Delegación de Comercio de Bilbao, a los efectos previstos en la Orden de 21 de septiembre de 1988 del Departamento de Industria y Comercio, por la que se establecen las Normas a que han de ajustarse los expedientes de revisión de tarifas de servicios de auto-taxis realizados en el ámbito urbano.

**194º.- APROBACIÓN DE LOS CRITERIOS DE APLICACIÓN PARA SELECCIÓN Y EXPURGO DE LOS DOCUMENTOS DE SERVICIOS SOCIALES Y RÉGIMEN INTERIOR.**

Tras darse lectura a la propuesta, se somete a votación, obteniendo el siguiente resultado: 15 votos a favor del

eta 10 abstentzio (PP).

PNV, PSE-EE y EB/B y 10 abstenciones del PP.

Lehendakaritza Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión de Presidencia, se acordó por mayoría:

Gizarte Zerbitzuen eta Barne Araubideko agiriak aukeratu eta garbitzeko aplikatu beharreko irizpideak onestea. Horiek eranskin gisa erantsi dira bere arrazoiko espedientera.

Aprobar los criterios de aplicación para selección y expurgo de los documentos de Servicios Sociales y Régimen Interior, que se incorporan como Anexo al expediente de su razón.

### HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK

### URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS

#### 195.- GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO ALDAKETA ZEHATZA, 49-“PUNTA BEGOÑA” ALDERAKO ETA ARRILUZeko LURPEAREN ERABILERARAKO, HASIERA BATEAN ONESTEA.

#### 195º.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO, PARA EL ÁREA Nº 49-“PUNTA BEGOÑA” Y AL USO DEL SUBSUELO EN ARRILUZE.

Proposamena irakurri ondoren, Urkiza jaunak adierazi du proposamenaren aurka bozkatu behar duela 2007. urteko martxoko kontratuaren adjudikazioaren aurrean gaudelako, eta espedientean konturik igaro dela egiaztatu gabe, aldatu nahi da emakidadunari aprobetxamenduko 3.000 m2 gehiago esleituta, proiektua hobetzeko eta 50 urteren buruan udal titularitatekoa den higiezia, bere instalazio guztiak barne, Udalera itzuliko delako justifikazio bakarra egonik, eta hori ez zaiola justifikatzeko arrazoirik iruditzen esan du. Uste du Udala sustatzaileen eskaerara makurtzen ari dela espedientean

Tras darse lectura a la propuesta inte4viene el Sr. Urkiza para indicar que votará en contra de la propuesta ya que estamos ante una adjudicación de un contrato en marzo del 2007, y sin que en el expediente se acredite que haya pasado ninguna cuestión, se pretende modificar asignando a la concesionaria 3.000 m2. más de aprovechamiento, con la única justificación de que se mejora el proyecto y que a los 50 años el inmueble que es de titularidad municipal revertirá con todas sus instalaciones al Ayuntamiento, lo cual no le parece razón justificativa. Estima que el Ayuntamiento se está plegando a



dokumentatutako justifikaziorik ez dagoen arren.

Almansa jaunak adierazi du talde sozialistak, erabilgarri duen informazioa aztertuta, eta gobernu-taldeari beharrezko gardentasuna eskatuta, proposamenaren aldeko botoa eman behar duela plangintzak sar daitezten baimendu beharreko aldaketak, bere ustez, beharrezkoak baitira ostalaritzako jardueraren garapenerako, udal jabetzako eraikina dela kontuan harturik, eta ezarri behar duten jarduera oso garrantzitsua dela Getxoko udalerrirako. Halaber, gogorarazi du emakidaduna aurkeztutako enpresa bakarra izan zela eta Begoña Lurmuturreko Galeriak narriadurako egoera handian daudela; honek, planteatu bezala jardun ezean, bertan jarduerarik egitea ezinezko eginda. Gobernu-taldeari eskatu dio aukera baliatu dezan, aurreikusitako aparkalekuaren zabalpenetik abiatuta, txandakako aparkalekua eraiki dezan, eta biribilgunean hotelaren hainbat hodiren irteerak jaso behar dituen diseinu artistikoa ideien lehiaketa publikoaren bidez adjudikatzeko ere eskatu du.

Gamero jaunak, talde popularraren izenean proposamenari babesa agertu dio, Getxorako proiektu ona aurrera atera dadin ahalbidetzeagatik; proiektu honek enplegua, aberastasuna eta zerbitzuak sortzen dituelako. Gogorarazi du proposamena HAPO aldatzeaz bakarrik aritzen dela, eta eskatu du proiektua garantia nahikoekin egitea zuzen burutzeko; baina horrek ez du esan nahi emakidadunari txeke zuria ematea. Aldi berean, esan du administrazioko izapidetza kezkatzen duela, izan ere,

las peticiones de los promotores sin que existan justificaciones documentadas en el expediente.

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista, estudiada la información de que dispone, y pidiendo al equipo de Gobierno la transparencia necesaria, va a apoyar la propuesta por considerar necesario para el desarrollo de la actividad hostelera los cambios que el planeamiento va a permitir acometer, teniendo en cuenta que es un edificio de propiedad municipal, y que la actividad que se va a implantar es de gran importancia para el municipio de Getxo. Recuerda así mismo que la concesionaria fue la única empresa que se presentó y que las Galerías de Punta Begoña están en una situación de deterioro importante que hace imposible, si no se actúa como se plantea, ejercer allí una actividad. Pide al equipo de Gobierno que aproveche la ocasión para plantear la construcción de, a partir de la ampliación del parking previsto, construir un parking de rotación, y que el diseño artístico que va a acoger las salidas de diversos conductos del hotel en la rotonda, se adjudique mediante un concurso de ideas público.

El Sr. Gamero, en nombre del grupo Popular manifiesta su apoyo a la propuesta, por permitir que un buen proyecto para Getxo salga adelante por lo que supone de generación de empleo, riqueza y servicios. Recuerda que la propuesta se refiere exclusivamente a modificar el PGOU, y solicita que el proyecto se haga con las garantías suficientes para que se ejecute de manera correcta, sin que ello signifique dar un cheque en blanco a la concesionaria, a la vez que indica que les preocupa la tramitación

HAPOn aldazpenek emakidaren aukerak zabaltzen dituzte, horrela, zalantza juridikoren bat egon liteke kontratuaren balizko aldaketaren gainean, eta esan du argitzea gustatuko litzaiekeela. Bukatzeko, adierazi du Udalak konpentsazioak eskatu beharko lizkiokeela onartu behar dituen aldaketengatik, eta galdetu du obrek eremuan izango dituzten afekzioak konpontzea nola aurreikusi duten. Gainera, eremuan etorkizunean aparkalekua egiteko aukera ere planteatu du, berau zerbitzu garrantzitsua dela uste baitu.

Arregi jaunak gobernu-taldearen izenean adierazi du proposamena HAPOn aldaketa dela uztailetik eztabaidatu dutena Hirigintzako Batzordean. Egun horretatik aurrera lanean egin dira proiektuaren eraikuntzako bideragarritasuna bilatzeko, galerien eta bere ingurunearen egoera fisiko erreala kontuan harturik. Landa-azterketak egin dira, bai galerien egoera fisikoari buruz bai itsasaldien indarraren ondorioei buruz, eta azterketa hauek kontratuaren adjudikazioaren ondorengoak dira. Ikuspegi ekonomikotik, aberastasun-sorreraren, enplegu-sorreraren ikuspegitik bai espazio publiko handiagoa eta galeriak berreskuratzeko eskuratzeko ikuspegitik, proiektu adierazgarria eta Udalarentzat oso garrantzitsua dela dioten adierazpenekin bat dator. Adierazi du egindako azterketan ikusi dela eraikuntzako perimetro berberarekin aprobetxamendu handiagoa lor daitekeela dauden aukerak optimizatuz gero. Adierazi du lurpeko aparkalekuan handitzeko lanean ari direla (honek solairu bakarra izango luke). Eta bukatzeko, adierazi

administrativa ya que las modificaciones del PGOU amplían las posibilidades de la concesión, de tal manera que puede suscitarse alguna duda jurídica respecto a la posible modificación del contrato que les gustaría que se clarificara. Finaliza indicando que el Ayuntamiento debería exigir compensaciones a la concesionaria por los cambios a los que va a acceder, y pregunta como está previsto resolver las afecciones de las obras en la zona, además de plantear la posibilidad de un futuro aparcamiento en la zona, cuestión que considera un servicio importante.

El Sr. Arregi manifiesta en nombre del equipo de Gobierno que la propuesta es una modificación del PGOU que se ha debatido desde julio en la Comisión de Urbanismo. Que desde esa fecha se ha venido trabajando para buscar la viabilidad edificatoria del proyecto, teniendo en cuenta la situación física real de las galerías y su entorno. Se han realizado estudios de campo, tanto sobre el estado físico de las galerías como los efectos de la fuerza de las mareas, estudios que son posteriores a la adjudicación del contrato. Comparte lo manifestado acerca de que es un proyecto emblemático y muy importante para el Ayuntamiento, tanto desde el punto de vista económico, de generación de riqueza, de creación de empleo, como de obtener un mayor espacio público y recuperación de las galerías. Manifiesta que del estudio que se ha realizado se ha visto la posibilidad de con un mismo perímetro edificatorio se pueda lograr un mayor aprovechamiento a partir de la optimización de las posibilidades existentes. Indica que están trabajando en la ampliación del parking subterráneo que únicamente constaría

du proiektuaren burutzapena garestitu dela galerien egoera fisiko eta bere inguruneagatik. Ildo beretik, esan du momentu honetan 40 milioi euro inguruko inbertsioa behar duela, eta inbertsio hori egiten duenik lortzea ez dela erraza. Azkenik, esan du proiektua bideragarri egiten duen norbait aurkitu arte igarotako denborak hori frogatzen duela.

Urkiza jaunak gogorarazi du galeriak eraits ditzaten baimendu edo ez Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena dela, eta aldaketek solairuarte berria sortzen dutela. Hortaz, proposatu dute terrazan eraikigarritasunaren zenbaketa aldatzea, eta horrek azkenean eraikigarritasuneko 3.000 m<sup>2</sup> gehiago eranstea dakar, baina espedientean ez dago gehikuntza hori justifikatzen duen edo iragan martxotik kostu handiagoa edo egoera berriak justifikatzen dituen udal txostenik dagoenik. Adierazi du higiezinaren egoerari buruz egindako azterketatik lurpeko bigarren solairua egitea ezinezkoa dela ondorioztatzen bada, bai eta tximiniaren gaiaren bestelako soluzioa planteatzen bada, bera ados egongo litzatekeela, izan ere, oinarririk du eta gainera auzokoei mesede egiten die, baina planteatzen diren gainerako aldaketak adjudikaziodunaren aldekoak baino ez direla esan du. Ondoren, adierazi du mota honetako jarduketa diskriminatzailea izan daitekeela Udalak kontratuen beste emakidadun batzuekin jarduteko moduaren aurrean.

Arregi jaunak, berriz, adierazi du adjudikaziodunak planteatutako guztia ez dutela onartu eta HAPO aldatzeko aurkeztutako proposamena adjudikaziodunak kontratatuko

de una planta, y finaliza manifestando que la ejecución del proyecto se ha encarecido por la situación física de las galerías y el entorno, y que en este momento requiere una inversión próxima a los 40 millones de Euros, una inversión que no es fácil conseguir quién la realice, y que esto ha venido demostrado por los años que han pasado hasta encontrar alguien que viabilizara un proyecto.

El Sr. Urkiza recuerda que el autorizar o no el derribo de las galerías es algo que compete a la Diputación Foral de Bizkaia, y que las modificaciones generan una entreplanta nueva, y proponen un cambio de cómputo de la edificabilidad de las terrazas, lo que supone al final incorporar 3.000 m<sup>2</sup> más de edificabilidad, sin que en el expediente exista informe municipal que justifique ese incremento ni justifique mayor costo ni nuevas situaciones desde el pasado mes de marzo. Manifiesta que si del estudio realizado sobre el estado del inmueble se deriva la imposibilidad de hacer una segunda planta subterránea, así como si se plantea una solución diferente al tema de la chimenea, él estaría de acuerdo, ya que tiene su fundamento y además favorece a los vecinos, pero que el resto de las modificaciones que se plantean son únicamente favorables al adjudicatario, y que una actuación de este tipo puede ser discriminatoria frente a cómo actúa el Ayuntamiento con otros concesionarios de contratos.

Interviene el Sr. Arregi para indicar que no se ha accedido a todo lo planteado por la adjudicataria, y que la propuesta que se presenta de modificación del PGOU es el trabajo conjunto entre los

arkitektoen eta udal arkitektoen artean elkarrekin egindako lana dela. Berretsi du ezen, dauden azalera optimizatuta, solairuarterko metro karratuen kopuru handiagoa lortzen dela, eta adierazi du babestutako eraikinetan terrazak zenbatzeko irizpidearen aldaketa ez dela mugatzen Begoña Lurmuturreko Eremura bakarrik, udal mugarte osora baizik. Urkiza jaunak, berriz, gogorarazi du Batzordean ere berak oraingoaren bestelako zenbaketa egiteko aukera planteatu zuela eraikin guztien terrazek eta balkoiek kontsumitzen duten azalerari dagokionez.

Urkiza jaunak adierazi du ez dagoela ados terrazen azalera zenbaketa babestutako eraikinetara bakarrik mugatzearekin, hauek, oro har, maila ekonomiko handia duten pertsonen jabetzak izan ohi baitira, eta defendatu du zenbaketa mota hauek balkoi eta terraza guztietara zabaltzea. Bukatzeko, berriro esan du kontratistari mesede egiten zaiola Udalarentzako kontraprestaziorik eskatu gabe.

Alkate jaunak, EAJren izenean, adierazi du Begoña Lurmuturreko Galerietan jarduteko norbait lortzea eragiketa zaila izan dela urte askoko iraupena izan duena, ildo beretik, esan du hainbat legealditan hori lortzen saiatu direla. Adierazi du burutu beharreko proiektuak 40 milioi euro inguruko inbertsioa eduki behar duela eta ehun lanpostu inguru sortu behar dituela, hortaz, horrek udalerrian langile gehien dituen bigarren enpresa pribatua sortzea ekarriko luke. Proiektuaren barruan 5 izarreko hotela jasota dago, eta horrek Getxo maila honetako hotelen munduko mapan jarriko luke,

arquitectos contratados por la adjudicataria y los arquitectos municipales. Se ratifica en que, a través de la optimización de las superficies existentes se consigue mayor número de metros cuadrados de entreplanta e indica que la modificación del criterio de cómputo de las terrazas en edificios protegidos no se limita únicamente al Área de Punta Begoña, sino que se extiende a todo el término municipal, recordando al Sr. Urkiza que él planteó también en la Comisión la posibilidad de efectuar un cómputo diferente al actual respecto a la superficie que consumen las terrazas y balcones de todos los edificios.

El Sr. Urkiza manifiesta que no está de acuerdo en que la modificación del cómputo de las superficies de las terrazas se limite a edificios protegidos, que normalmente son propiedad de gente de un nivel económico importante, y defiende que este tipo de cálculos sea extensible a todos los balcones y terrazas. Finaliza insistiendo que se favorece al contratista sin pedir contraprestaciones para el Ayuntamiento.

Interviene el Alcalde para manifestar, en nombre del PNV, que el conseguir alguien que interviniera en las Galerías de Punta Begoña ha sido una operación difícil que ha durado muchos años y que en diferentes legislaturas se ha intentado conseguir. Indica que el proyecto que se va a ejecutar va a tener una inversión cercana a 40 millones de euros y va a generar alrededor de cien puestos de trabajos directos, lo que supondría crear la segunda empresa privada de más empleados del municipio. El proyecto contempla un hotel de 5 estrellas que situaría a Getxo en el mapa mundial de hoteles de este

eta, logikoa denez, turismoa eta jarduera ekonomiko osoa bultzatuko lituzke. Gogora ekarri du emakidaren bukaeran, eraikina zein instalazio guztiak Udalari itzuliko lizkiokete eta, gainera, urtero 300.000 euroko kanona ordaindu behar dutela. Azpimarratu du eztabaidatzen den puntuak tekniko eta ekonomikoki erraza ez den eta Getxorako garrantzi handikoa den proiektua ondo egitea ahalbidetzen duen HAPOren aldaketa baino ez duela eransten.

Eztabaida bukatuta eta proposamena bozkatu ondoren, hurrengo emaitza egon da: EAJ, PP eta PSE-EE alderdien aldeko 24 boto eta EB/B taldearen aurkako boto 1.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengoz, legezko gehiengo osoaren "quorumaz":

LEHENENGOA.- Hasiera batean onetsiko da Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza, 49-"Punta Begoña" aldea, Hirigintzako Arauen 7.1.13 artikulua eta Arriluzen lurpea erabiltzea ukitzen dituen, Herritarrek parte hartzeko programa egokiarekin.

BIGARRENA.- Erabaki hau eta bere jatorrizko espedientea jendaurrean erakusteko nahitazko tramitea beteko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta lurraldean gehien irakurtzen diren egunkarietako bitan argitaratuz, azken argitaralditik HILABETEKO epean.

HIRUGARRENA.- Hasierako

nivel, e impulsaría lógicamente el turismo y toda la actividad económica. Recuerda que a la finalización de la concesión, tanto el edificio como todas las instalaciones revertirán al Ayuntamiento, además de que anualmente debe de pagar un canon de 300.000 €uros. Insiste en que el punto que se debate únicamente incorpora la modificación del PGOU que posibilite la óptima realización de un proyecto que no es fácil ni técnica ni económicamente y que es de vital importancia para Getxo.

Finalizado el debate y sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 24 votos a favor del PNV, PP y PSE-EE y 1 en contra de EB/B.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría, y con el "quorum" de la mayoría absoluta legal:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo, que afecta al Área nº 49-"Punta Begoña", al Art. 7.1.13 de las Normas Urbanísticas y al uso del subsuelo en Arriluze, con su correspondiente Programa de Participación Ciudadana.

SEGUNDO.- Someter el presente acuerdo, junto con el expediente del que dimana, al preceptivo trámite de información pública, por medio de su publicación en el Boletín del Territorio Histórico de Bizkaia y en dos diarios de los de mayor difusión del territorio, por el plazo de UN MES a partir de la última publicación.

TERCERO.- Notificar el acuerdo de

onespeneko erabakia jakinaraziko zaizkie sektore-eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakitun egon daitezten eta txostena egin dezaten.

LAUGARRENA.- Beraren eta espedientearen berri emango zaio Getxo udalerriko Hiri Plangintzako Aholku Batzordeari, txosten egokia egin dezan, jendaurrean erakusteko denboraldia bukatu eta hilabeteko epean.

BOSGARRENA.- Beren beregi agerrarazten da Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik onespen erabaki honek gehienez bi urtez eteten duela edozein modutako onespen, baimen eta lizentziak ematea aldaketa aplikatuko den eremuan, aurreikusten diren zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintzako araubidea aldatzea dakarten neurrian.

SEIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

#### MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

Alkate jaunak adierazi du Talde Sozialistak premiazko mozioa aurkeztu duela, Areetako Errekagane parkeko Gobela ibaiaren ibilguaren ondoko oinezkoen ibilbideei buruzkoa. Hortaz, premiaz eztabaidatzea bidezkoa da.

aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

CUARTO.- Dar traslado del mismo, junto con su expediente, al Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo al objeto de que, en el plazo máximo de un mes a partir de la finalización del periodo de información pública, sea emitido el correspondiente informe.

QUINTO.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo prevenido en el Art. 85.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, que este acuerdo de aprobación determina la suspensión, por el plazo máximo de dos años, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito objeto de la modificación en la medida en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

SEXTO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas en orden a la ejecución de estos acuerdos.

#### MOCIONES, INTERPELACIONES Y RUEGOS Y PREGUNTAS

El Sr. Alcalde indica que se ha presentado una Moción de urgencia por el grupo Socialista, relativa a los itinerarios peatonales junto al cauce del río Gobela, en el Parque de Errekagane de Las Arenas, por lo que procede

Almansa jaunak, Talde Sozialistaren izenean, adierazi du premiazko moziogisa aurkeztu dutela zuzenketak aurkezteko epearen bukaeran izandako bere hanka-sartzeagatik, moziorengertzia bera baino gehiago.

Alkate jaunak adierazi du moziogaraiz kanpo aurkeztu zutela eguneko aztergaien zerrendan gaineratzeko, eta premiazkoa ez bada hurrengo bilkura batean erantsi ahalko litzatekeela.

Arrue andreak, Talde Popularraren izenean, bilkura honetan izapidetzea babestu behar dutela.

Koldo Iturbe jaunak, gobernu-taldearen izenean, azpimarratu du urgentziarik ez dagoela, epeak betetzeko daudela eta bozketan abstentzioa eman behar dutela.

Urkiza jaunak adierazi du ez duela moziorengertzia kontuan hartzen, baina aldeko botoa eman behar duela Osoko Bilkuran eztabaidatu ahal izateko.

Almansa jaunak egindako akatsaren arrazoiak azaldu dituela berretsi du, eta eskerrak eman dizkie bere babesarekin moziogara eztabaidatzea ahalbidetu behar dutenei. Halaber, adierazi ere egin du moziorengertzia edukitua materialean bai daudela premiazkoak diren jarduketak, ondoren eztabaidan ikusi ahal izango den bezala.

Alkate jaunak adierazi du administratiboki ez direla betetzen premiazkoa dela jotzeko baldintzak, baina gogoeta politikoagatik aurka

debatir acerca de la urgencia.

El Sr. Almansa en nombre del grupo Socialista, indica que la presentación como Moción de urgencia se debe más a un despiste suyo respecto a la hora de finalización del plazo de presentación de enmiendas, que realmente a la urgencia misma de la Moción.

El Sr. Alcalde le indica que la Moción se presentó fuera del plazo para su incorporación al orden del día, y que si no es urgente podría incorporarse a una próxima sesión.

La Sra. Arrue en nombre del grupo Popular manifiesta que van a apoyar el que se tramite en la presente sesión.

El Sr. Koldo Iturbe, en nombre del equipo de Gobierno recalca que no existe la urgencia, que están los plazos para cumplirlos, y que van a abstenerse en la votación.

El Sr. Urkiza indica que no considera la urgencia de la Moción, pero que votará a favor a fin de que se pueda debatir en el presente Pleno.

Interviene el Sr. Almansa para ratificarse en que ha explicado las razones del error cometido, y agradecer a aquellos grupos que con su apoyo van a posibilitar que se debata la Moción. Indica así mismo que realmente el contenido material de la Moción si tiene actuaciones que estima que son urgentes tal como posteriormente se podrá observar en el debate.

El Sr. Alcalde indica que administrativamente no se cumplen los requisitos para entender que es de urgencia, pero por reflexión política es

agertu beharrean abstentzioa eman behar dutela.

Aipatutako mozioaren premiaz bozkatuta, hurrengo emaitza egon da: PSE-EE, PP eta EB/B taldeen aldeko 15 boto eta EAJren 10 abstentzio. Ondorioz, aipatutako mozioa eguneko aztergaien zerrendan sartzea onetsi da.

**196.- UDAL TALDE POPULARRAREN MOZIOA, UDALAREN OSOKO BILKURETAN ALDIBEREKO ITZULPENA EZARTZEARI BURUZKOA.**

Andrade jaunak aipatutako mozioa irakurri du.

Iñaki Urkiza jaunak adierazi du aldeko botoa eman behar duela, batez ere euskaldunek informazio guztia euskaraz jasotzeko hizkuntza-eskubideak errespetatzeagatik.

Koldo Iturbe jaunak, gobernu-taldearen izenean, adierazi du abstentzioa eman behar duela baina horrek ez dakarrela aldibereko itzulpena ezartzeko aukera bazterzea, horrela, erantsi du Euskara Planaren proiektua momentu honetan ia bukatuta egonik (aurki Osoko Bilkuran aurkeztuko dute), uste du zehaztapen hau jaso behar dela Euskara Planaren zehaztapenen barruan, eta zentzu horretan gogoeta egiten ari direla esan du. Hori dela eta, proposatu duen taldeari mozioa kentzeko eskatu dio.

Andrade jaunak adierazi du ez dutela

por lo que no se van a oponer sino que se abstendrán.

Sometida la urgencia de la Moción referida a votación, obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor del PSE-EE, PP y EB/B y 10 abstenciones del PNV, siendo por tanto admitida la inclusión de dicha Moción en el orden del día.

**196º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/INSTALACIÓN DE LA TRADUCCIÓN SIMULTÁNEA EN LOS PLENOS DEL AYUNTAMIENTO.**

El Sr. Andrade da lectura a la Moción de referencia.

Iñaki Urkiza manifiesta que votará a favor sobre todo por respetar los derechos lingüísticos de los euskaldunes a acceder a toda la información en euskara.

Koldo Iturbe en nombre del equipo de Gobierno indica que se van a abstener, sin que ello suponga rechazar la posibilidad de la implantación de la traducción simultánea, pero que estando en este momento finalizado prácticamente el proyecto de Plan de Euskera que será en breves fechas presentado al Pleno, estima que esta determinación debe incluirse dentro de las determinaciones del Plan de Euskera, y en este sentido se está reflexionando, por lo que solicita al grupo proponente que retire la Moción.

El Sr. Andrade indica que no van a



mozioa kendu behar, eta berau onetsitakoan, logikoena berau Euskara Planaren proiektuan zuzenean sartzea dela. Adierazi du mozioaren premia handiena dela euskaraz eta gaztelaniaz egindako adierazpenek eduki berberak izan ditzaten.

Almansa jaunak adierazi du mozioa babestu behar dutela, eta adierazi du akordioak berehala betearazleak direla, ildo beretik, erantsi du akordioaren burutzapena Euskara Planarekin lotzea gehiegizkoa iruditzen zaion atzerapena dela. Gainera, bere iritziz, irudiko luke aipatutako neurria gobernu-taldearen eskutik etorriko litzatekeela baina, benetan, oposizioko taldeek hainbatetan egindako eskaera da. Azpimarratu du aldibereko itzulpenik gabe korporaziokide bakoitzak egiten duen itzulpenaren fideltasuna ia ezinezkoa dela testuak idatzia ez badakartza, eta askotan adierazpenek eduki ezberdinak izan dituzte.

Iturbe jaunak adierazi du ez dagoela aurreikusita Euskara Planaren aurkezpena atzeratzea, eta berretsi du berau dela gai hau aurkezteko esparru egokia. Adierazi du mozioak ez direla betearazleak eta aitortu du auto-itzulpena oso zaila dela, baina aldibereko itzulpenarekin gauza bera gertatuko litzatekeela gaineratu du.

Almansa jaunak adierazi du Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legeak xedatzen duela tokiko erakundeen erabakiek izaera betearazlea dutela, halaber, ez du onartzen aldibereko itzulpena ez jasotzea hiritarren hizkuntza-eskubideetan oinarriturik, argudio hori bera baita aldibereko itzulpena ezartzeko beharra justifikatzen duena.

retirar la Moción, y que de aprobarse ésta, lo lógico es incorporarla directamente en el proyecto de Plan de Euskera. Manifiesta que la urgencia mayor de la Moción es conseguir que las intervenciones que se realicen en euskera y castellano expresen los mismos contenidos.

El Sr. Almansa manifiesta que apoyarán la Moción, e indica que los acuerdos son inmediatamente ejecutivos, y vincular la ejecución del acuerdo al Plan del Euskera es un retraso que le parece excesivo, y además parecería que dicha medida vendría de manos del equipo de Gobierno cuando es una demanda repetida de los grupos de la oposición. Subraya que sin traducción simultánea la fidelidad de la traducción que realiza cada corporativo es prácticamente imposible a menos que traigan los textos escritos, y muchas veces las intervenciones han tenido contenidos diferentes.

El Sr. Iturbe indica que la presentación del Plan de Euskera no está prevista que se vaya a retrasar, y se ratifica en que es el ámbito adecuado donde plantear esta cuestión. Indica que las Mociones no son ejecutivas y reconoce que es muy difícil la auto-traducción pero que también pasaría lo mismo con la traducción simultánea.

El Sr. Almansa manifiesta que la Ley de Bases de Régimen Local señala el carácter ejecutivo de los acuerdos de las entidades locales, y no acepta que no se contemple la traducción simultánea en base a los derechos lingüísticos de los ciudadanos, ya que ese mismo argumento es el que justifica la necesidad de la traducción simultánea.

Koldo Iturbe jaunak berriro esan du Euskara Plana aurki aurkeztu behar dutela eta berau gai hau eztabaidatzeko esparru egokia dela. Bukatzeko, adierazi du gobernu-taldeak zalantzak dituela proposamen zehatzari dagokionez eta horregatik denbora gehiago eskatu du eta Euskara Planaren barruan bere gogoeta egiteko.

Eztabaida bukatuta, aipatutako mozioa bozkatu dute eta hurrengo emaitza egon da: PP, PSE-EE eta EB/B taldeen aldeko 15 boto eta EAJren 10 abstentzio.

Ondorioz, gehiengo bidez, honakoa erabaki da:

“UDALAREN OSOKO BILKURETAN  
ALDIBEREKO ITZULPENEA  
EZARTZEA

2006. urteko otsailetik Udal honek aldibereko itzulpeneko zerbitzua kontratatuta du, Udal honen eta Kultur Etxearen hainbat ekitaldirako erabiltzen dena.

Udal Popularraren Udal Taldeak osoko bilkuretan, batzordeetan, aurrekontuko eztabaidetan,... behin eta berriro eskatu dute aldibereko itzulpena ezartzeko Udalaren osoko bilkuretan, baina orain arte gobernu-taldeak ez du ezartzea erabaki.

Alderdi Popularraren iritziz, Udalaren osoko bilkura udalaren garrantzi eta ordezkaritza handieneko organoa da eta aldibereko itzulpenik ez egoteak tokiko ordezkari politikoei euskaraz askatasunez hitz egiteko aukera kentzen die eta osoko bilkuren denborak gehiegi handitzen ditu.

Koldo Iturbe insiste en que el Plan de Euskera es de próxima presentación, y es el marco adecuado para discutir esta cuestión, y finaliza indicando que el equipo de Gobierno tiene dudas acerca de la propuesta concreta y que por eso pide un tiempo y su reflexión dentro del Plan de Euskera.

Finalizado el debate, se somete la Moción de referencia a votación, obteniendo en siguiente resultado: 15 votos a favor del PP, PSE-EE y EB/B y 10 abstenciones del PNV.

En consecuencia, por mayoría, se acordó:

“INSTALACIÓN DE LA  
TRADUCCIÓN SIMULTANEA EN  
LOS PLENOS DEL AYUNTAMIENTO

Desde febrero de 2006, este Ayuntamiento tiene contratado un servicio de traducción simultánea que se utiliza para diversos actos de este Ayuntamiento y el Aula de Cultura.

El Grupo Municipal del Partido Popular ha solicitado reiteradamente en plenos, comisiones, debates presupuestarios etc., la instalación de traducción simultánea en los plenos municipales, sin que hasta la fecha el equipo de gobierno haya decidido su instalación.

Para el Partido Popular, el pleno del Ayuntamiento es el órgano de mayor importancia y representación municipal y la ausencia de traducción simultánea priva a los representantes políticos locales de su oportunidad de expresarse libremente es Euskera, y dilata en excesivo los tiempos de los

Horri guztiari gaineratu behar diogu ezen, oraingo egoeran, adierazpenak egiten dituztenak beraiek egiten dituzten gaztelerarako itzulpenak ez datozela bat hitzez hitz euskaraz egindako adierazpenekin, hortaz, erdaldunei adierazpenen eduki zehatza ezagutzeko aukerari gabe uzten zaie eta gure araudi organikoan osoko bilkuren aretoan hizkuntzak erabiltzeko ezarritakoa perbertitzen da.

Aldibereko itzulpena ezartzeak ez du zertan esan adierazpen bakoitzean bi hizkuntzok erabiltzea (hau adierazpena egiten duenaren mende geldituko da) baina Udal Araudi Organikoan adierazpenen eduki errealari dagokionez ezarritakoa betetzea baimenduko du.

Horregatik guztiagatik, hurrengo ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten dugu:

Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio, ahalik eta lasterren, aldibereko itzulpen-sistema ezar dezan udalaren osoko bilkuretan”.

**197.- UDAL TALDE POPULARRAREN MOZIOA, HIRUGARREN ADINERAKO PARKEAK SORTZEARI BURUZKOA.**

Raquel González andreak aipatutako mozioa irakurri du. Jarraian, adierazi

plenos.

A todo esto tenemos que añadir que, en la situación actual, las traducciones al castellano que se efectúan por los propios intervinientes no se corresponden de forma literal con las intervenciones que se han realizado en Euskera, con lo que se priva a los castellano-parlantes de conocer el contenido exacto de las intervenciones y se pervierte lo establecido en nuestro reglamento orgánico para el uso de los idiomas en el salón de plenos.

La instalación del sistema de traducción simultánea no tiene porque significar que no se usen los dos idiomas en cada intervención (esto quedará al arbitrio del interviniente) pero permitirá cumplir con lo establecido en el Reglamento Orgánico Municipal en cuanto al contenido real de las intervenciones.

Por todo ello presentamos la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

El Pleno del Ayuntamiento Municipal insta al equipo de gobierno para que, a la mayor brevedad posible, proceda a la instalación de un sistema de traducción simultánea en los plenos municipales”.

**197º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA CREACIÓN DE PARQUES PARA LA TERCERA EDAD.**

Raquel González da lectura a la Moción de referencia. A continuación indica

du eskuratu ahal izan dituen datuen arabera parke bakoitzerako beharrezko gutxieneko azalera 60 m<sup>2</sup>koa izango litzatekeela eta gutxieneko inbertsioa, berriz, 6.000 eurokoa.

Arregi jaunak, gobernu-taldearen izenean, adierazi du gobernu-taldea ados dagoela mozioarekin. Mozio honek gobernu-taldea prestatzen ari den Legealdiko Planaren aurreikusitako jarduketara biltzen duela, eta alderdi honi dagokionez Planaren edukia zehaztu du. Adierazi du Maidagan eta Txabarri Zuazio parkeetan eskatutako elementuak erantsita dituzten jokoguneen bi proiektu idatzita daudela.

Urkiza jaunak adierazi du EB/B taldeak aldeko botoa eman behar duela eta gogorarazi du aurreko legealdian instalazio hauek Nagusien Etxetik gertu kokatzeko aukera aztertu zutela.

Eztabaida bukatuta, eta mozioa bozkatu ondoren, Korporazioko kide guztiek berau onetsi dute.

Ondorioz, aho batez, honakoa erabakida:

“3. ADINERAKO PARKEAK  
SORTZEARI BURUZ

#### JUSTIFIKAZIOA

Helduaroa sasoi fisikoa zaintzeko momentu ona da beste edozein bezalaxe. Horrela ziurtatzen dute kirol medikuntzako espezialistek, izan ere, hauek azaltzen dute zahartze aktiboak muskulu-tonua eta osteoporosia edo bihotzeko gutxiegitasuna hobetzen laguntzen duela.

que según los datos que han podido obtener la superficie mínima necesaria para cada parque serían 60 m<sup>2</sup>. y la inversión mínima del orden de 6.000 euros.

El Sr. Arregi indica en nombre del equipo de Gobierno el acuerdo del equipo de Gobierno con la Moción que recoge una actuación prevista en el Plan de Legislatura que está elaborando el equipo de Gobierno, y detalla el contenido del Plan en ese aspecto. Manifiesta que hay redactados dos proyectos de zonas de juegos en los parques de Maidagan y Txabarri Zuazo que incorporan los elementos solicitados.

El Sr. Urkiza manifiesta el voto a favor de EB/B y recuerda que en anterior legislatura se estuvo estudiando la posible ubicación de estas instalaciones cerca de los Nagusien Etxea.

Finalizado el debate, y sometida la Moción a votación, es aprobada por la totalidad de miembros de la Corporación.

En consecuencia, por unanimidad, se acordó:

“SOBRE LA CREACIÓN DE PARQUES  
PARA LA 3ª EDAD

#### JUSTIFICACIÓN

La madurez es tan buen momento para cuidar la forma física como cualquier otro. Así lo aseguran los especialistas en medicina deportiva, quienes explican que un envejecimiento activo ayuda a mejorar el tono muscular y enfermedades como la osteoporosis o la insuficiencia cardiaca.

Hain zuzen ere, nagusiei ariketa egitearen garrantziaz kontzientziatzeko nahia egonik, azkeneko hilabetetan “2. Adinerako Parkeak” deitutakoak ugaritzen hasi dira. Hiri eta herrietan kokaturiko berdeguneak, zabu bereziek osatutakoak, hauek adineko pertsonak mugikortasuna hobetzen, malgutasuna handitzen eta giharrak tonifikatzen laguntzen dutenak.

Kirola, finean, bizi-kalitateaz zahartzeko modu efektiboa da. Kirolaren Medikuntzako Espainiako Federazioaren idazkaria den Pedro Manonelles jaunaren iritziz, “jarduera fisikoak arteri presioa murriztu ahal du, pertsoneri iraupen handiagoko jarduerak egitea ahalbidetzen die akidura erakutsi gabe eta, arnasari dagokionez, biriken funtzionamendua hobetzen du”.

Profesionalak bat datoz kirola beharrezkoa dela esatearekin, osasunaren egoera ona mantentzeaz gainera, baita zahartzea eta mendekotasuna lotuta ez ikusteko balio izateko ere, kirola egiten duen pertsona aktiboago ikusten du bere burua.

Getxon, agerikoa da biztanle nagusiak ugaritu direla. Bizi-itxaropena nabarmen handitu da azkeneko hamarkadetan eta biztanleen sektore honi zuzendutako gizarte zerbitzuak bultzatzeko beharra ikusi da. Testuinguru honetan, orain dela urtebete 3. adinerako parkeen sorrera sortu zen, praktika hau Txinatik ekarri dute, eta bertan espazio ireki mota hauek ugari dira, kirola egiteko nagusiei egokituta daudenak.

Iaz zegoeneko, Madrilgo Komunitateak

